



## zakilixut

© Olariagak



## HONDAR ALEA

# Sarean libre

**MUSIKA INTERNETEN.** Metabolik BioHackab taldekoek Internetetik filmak eta musika hartzea legezkoa dela aldarrikatzeko ekintza egin dute Bilbon, SGAEren egoitza parean

IÑIGO BILBAO - BILBO

**I**nternetetik filmak edo musika hartzea legezkoa ez ezik bidezkoa ere bada. Hori egiaztatzeko, Metabolik BioHackab taldeko kideek Espainiako Egileen eta Editoreen Elkarteak (SGAE) Bilbon daukan egoitzaren aurrean ordenagailua piztu eta Teddy Bautista elkarteke zuzendariaren *Get on your knees* kanta hartu zuten atzo saretik.

Atzoko ekintza egin zuen *hacker* taldeak bost urte daramatza Leioako (Bizkaia) Gaztetxean, jabego intelektuaren aitzakian, komunikazioari jarri nahi zaizkion mugen eta traben kontra borrokan, informazioarena ei den gizartean politika egiteko premia ikusi dutelako. «Teknologia erabili dugu protestarako».

Ezer egin aurretik ekintza berri emanez mezu bana igorri zieten Espainiako Poliziari eta SGAE elkarteari bera. Bazekiten inork ez ziela ezer egitea galaraziko: «Kultura hartu eta partekatzea le-



SGAE-KO presidente Teddy Bautistaren kantu bat hartu zuten Internetetik, protestan. L. LAUREGALIZO / ARGAKZI PRESS

gezkoa dela erakutsi dugu, eskubide hori defenditzeko».

Haserre daude, agintariek eta hainbat hedabideek mafiatzat hartu dituztelako, nahiz eta milaka diren musika edo filmak hartu eta partekatzeke Internet erabiltzen dutenak.

«Legeak ezin dira herritarren kontra egin, zenbait disketeiri mesede egiteko bakarrik». Multinazionalak babestutako

copyright sistemari *copyleft* izenekoarekin erantzun diote: «Sortzaileak dagozkion eskubideak eskuratzen ditu, baina horrekin batera askatasuna uzten du nahi duenak lana kopia, aldatu, moldatu eta erabiltzeko».

Eurek ere zer kritikatu badaukate. Izan ere, edozeinek CD edo DVD garbi bat erosita, ordaindutakoaren %60

SGAEk berak hartzen du jabego intelektuala ordaintzeko. «Eta ordaindu behar izaten da nahiz eta CD hori oporretako argazkiak gordetzeko izan».

Bihar bertan ezagutzaren gizarteari buruzko jardunaldiak hasiko dituzte Bilbon. Hor izango diren agintarien jarrera salatzeke ere egin zuten Metabolik taldekoek atzoko *hack* ekintza.

## MARATILA

GARI BERSALUZE

## Berandu dabilta

**M**bouss Kechatek hogeita hiru ditu. Ikasketak amaitu zituenetik ez du lan egonkorrik lortu. Clichyko Le Bousquet auzotegian bizi da, Parisko gerriko zabalean, dorre handi batean, nekez ordain dezaketen alokairuan, senideekin batera. Kolore nabarrek langilez eta gaztez beteta doazen sardina laten antzeko autobusetan iritsi behar da bertara, ordubeteko bidea eginda.

Lan egonkorrik ez du lortu orain arte. Gaizki ordainduta lan zikinak besterik ez. Nortasun agiriarekin batera sorlekua eta helbidea erakustearrekin bat desagertzen zaizkio egonkortasunerako aukerak, lantegietako arduradunak nortasun agiria begiratzera iristen direnean, gehienek aurpegira begiratu orduko ukatzen baitiote solasaldia ere.

Bihotz bat du atorraren barruan, bularretik gertu, bizirik. Rafik Schamiren liburuak gustukoak ditu, eta ilargiaren irribarra, eta Rachid Taharen abestiak. Baina horiek eta horrelako kontu guztiak bihotz barneko taupadak dira. Kanpoan ez dira ikusten. Kanpoan, Mouss eta bera bezalako jendaila zaborra direla entzuten da. Zaborra direla dio Barne ministroak, eta ur-pistolaz garbituko dituela guztiak. Baina gero, urarekin beharrean, botere ekonomikoarekin, hedabideekin eta zurikeriekin betetzen ditu pistolak, eta tiro isilak botatzen ditu, egunero, Mouss bezalako milioika gazteren aurka. Gero, hauen malkoke su hartzen dutenean, amorruek eztanda egiten duenean, hutsala da kolorez eta saminez betetako itsaso erraldoi horri giltzaperatu nahi izatea. Berandu dabilta.

## USAIN TXARRAK?



## Azkenean, usain txarrak xurgatzen dituen komuna

Made in Germany



etxearen produktua

ARIZTEGI EZEIZA S.L.

Zubieta, 13 - 943 456 001

